



2009an kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak

Usurbilgo Kirol Patronatuko Zuzendari Batzordeak, 2009ko urtarrilaren 21eko bilkuran *2009an kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak* onartu zituen. Eskariak, diru-laguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit eguneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Usurbil, 2009ko urtarrilaren 28a.- Lontxo Zubiria Camino, lehendakaria.

2009KO KIROL EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK

Kirol arloan lanean diharduten irabazi asmorik gabeko norbanako, kirol erakunde eta elkarteentzako diru-laguntzak emateko oinarriak, 2009. urtean zehar ekintzak egiteagatik.

Usurbilgo Kirol Patronatuak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera ditu 2009. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

1. artikulua.- xedea

Ebazpen honen xedea da Usurbilgo Kirol Patronatuaren diru-laguntzen oinarri erregulatzailerak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2009. urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Diruz lagunduko dena da kirol ekimenak garatzea, baldin eta Usurbilgo Udalak edo bere erakunde autonomoak egiten dituzten ekimenen osagarri badira edo ordezkatzan badituzte edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak badira eta, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik diru-laguntza jasotzen duten ekintzak. Ezingo dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuen beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

2. artikulua.-Onuradunak

Diru-laguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke: Usurbilen kirol ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisikoek eta erakunde publikoek zein pribatuek, betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute. Usurbilgo udalerrian beren egoitza duten elkarteek diru-laguntzak lortu nahi badituzte, Elkartearen Udal-erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Halaber, Usurbilgoak ez diren entitateek ere eskatu dezakete diru-laguntza, baldin eta kirol ekimenen bat burutzen badute Usurbilen, izena emanda badaude dagokien Elkarte Erregistroan eta Udalerrirako interesgarriak direla iritzitako kirol jarduerak baldin badira.



USURBILGO KIROL PATRONATUA

Salbuespenez, eta Udal Ordenantzaren 5.artikuluko 4.atalak eta 6.artikuluko 7.atalak zehazten duten diru-laguntza eskabideak 3000 eurotik beherakoak izanez gero, onuradun izaera izan dezakete pertsona fisiko edo juridikoen taldeek, publikoak edo pribatuak, ondasun erkidegoek edo unitate ekonomikoa edo ondare bereizia den beste edozein mota, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, udal laguntza edo diru-laguntza lor dezaketen proiektuak edo jarduerak egin nahi dituztenean.

Merkatal enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan kirol ekintzarekin.

Onuradunek beti ere, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.

3. artikulua.-Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskariak Kirol Patronatuko egoitzan, hau da Oiardo kiroldegian aurkeztu behar dira Kirol Patronatuak jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira.

Diru-laguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau ekarri behar da Usurbilgo Kirol Patronatura:

- Diru-laguntza eskari normalizatua (I. Eranskina).
- Jarduerari buruzko fitxak (II. Eranskina).
- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia (edo NANaren kopia, hala badagokio)
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria. (III. eranskina.)
- Udal Erregistroan dauden datuak diru-laguntza eskatzen den unean benetakoak direla adierazten duen agiria. (IV. Eranskina.)

Erakundeak ez du zorrik izango Usurbilgo Udalarekin ez eta Usurbilgo Kirol Patronatuarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

4. artikulua.-Epeak

Eskariak, diru-laguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 eguneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera.

5. artikulua.-Diru-laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak.



Gastuak aurrekontu-partida hauetako kargura joango dira.

Deialdi irekikoak:

- 481 01 01 Lehiazko kirol-taldeen diru-laguntzak
- 481 01 02 Lehiazko ez diren kirol-taldeen diru-laguntzak
- 481 02 01 Kirol-teknikoen prestakuntza
- 481 02 02 Gazteen arteko sustapena
- 481 02 03 Herriko kirol egitura sendotzeko laguntza
- 482 04 Laguntza bereziak

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Kirol Patronatuak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

6. Prozedura

Kirol arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Kirol Patronatuko Zuzendari Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan. Ondoren, Dirulaguntzen Batzorde Orokorra ebazpen proposamena egingo du. Jarraian, interesatuari jakinaraziko zaio eta 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Azkenik, Kirol Patronatuko Zuzendari Batzordeak emango du dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena, gehienez ere, hiruhilabeteko epean eskaria aurkeztu izan den egunetik zenbatuta.

Aipatutako epea igaro ondoren ebazpena jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

7. artikulua.- Dirulaguntzen Batzorde Orokorra

Dirulaguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

- Udalean dirulaguntzak banatzen dituen batzorde bakoitzeko lehendakaria eta teknikaria
- Udal idazkaria
- Udal kontu-hartzailea

Dirulaguntza Batzorde Orokorren funtzioak, besteak beste, hauek izango dira:

- Udal dirulaguntzak banatzeko irizpideak bateratzea
- Dirulaguntzen legezkotasuna bermatzea
- Dirulaguntza bikoizketak ekiditea

8. artikulua.-Baloratzeko irizpideak

Sei arlotan bereiztuko dira irizpide hauek:

- 481 01 01 Lehiazko kirol-taldeen diru-laguntzak
- 481 01 02 Lehiazko ez diren kirol-taldeen diru-laguntzak
- 481 02 01 Kirol-teknikoen prestakuntza
- 481 02 02 Gazteen arteko sustapena
- 481 02 03 Herriko kirol egitura sendotzeko laguntza
- 482 04 Laguntza bereziak



1. - Lehiatzko jardueretarako (aurrekontuko 481 01 01 partida zk) :

a) Likidazioetan, jarduerarentzako ezinbestekotzat jotzen diren gastu hauek , ondoko proportzioetan lagunduko dira:

- Lizentzi gastuak, herritarrenak % 50ean; herritarrak ez direnean lizentzietan taula honen arabera sustatuko da :

antzinatasuna	lizentziaren gastuko proportzioa
1 urte	% 10a
2 urte	% 20a
3 urte	% 30a
4 urte	% 40a
5 urte edo gehiago	% 50a

- arbitraje eta epaile gastuak % 25ean
- jarduera egiteko beste kontzeptuak % 5ean.

b) Taldeko materialean izandako gastuaren %10a.

c) Taldeak egiten dituen bidaien %10a.

d) Aurreko denboraldi edo urteko likidazioen %2,5a eta burutu nahi den aurrekontuko %1,5a.

e) Taldearen kirol teknikoaren prestakuntza holaxe lagunduko da (taldean bat baino gehiago izatekotan batz bestekoa egingo da):

1. mailako titulua (kirol jardueraren begirale edo baliokidea) = 75,13 €

2. mailako titulua (kirol jardueraren erdi mailako tituluduna) = 150,25 €

3. mailako titulua (kirol jardueraren titulu gorena edo SHan tituluduna) = 300,51 €

f) Jarduera erabat euskaraz zuzentzen bada (jarduera bat baino gehiago izatekotan batz bestekoa egingo da) : 300,51 €

Talde guztiei legokeenaren batura izendatuta dagoen partidaren agertzen dena baino gehiago izanez gero, proportzionalki jaitsiko dira laguntzak partidaren muga agintzen duen arte.

2.-Jarduera fisikoaren bidez, gure kultura edota gure inguruaren ezagutza sustatzen dituen elkarteentzat (aurrekontuko 481 01 02 partida zk).

Kirol Patronatuak irizpide hauek erabiliko ditu dirulaguntzak ematerakoan:

- Partaideen kopurua eta beraien parte hartzea.
- Herritarrei zuzenduta eta hauen interesekoa izatea.
- Euskararen erabilpena.
- Jarduera kopurua.
- Fitxa kopurua



- Materiala.

Lehentasuna izango dute kolektibo berezientzako jarduerak: 3. adina, haurrak, ezinduak, etorkinak, eta orokorrean, kirol ekintzetatik kanpo edo gutxiengoan egon ohi diren kolektiboak udaleko edo Udaleko edo herriko beste talde edo elkarteekin batera edo elkarlanean egiten den jarduerak izatea

Talde guztiei legokeenaren batura izendatuta dagoen partidaren agertzen dena baino gehiago izanez gero, proportzionalki jaitsiko dira laguntzak partidaren muga agintzen duen arte.

3.- Taldeetako teknikoak prestatzeko direnean (Kirol-teknikoen prestakuntza 481 02 01 partida zk.)

Kirol Patronatuak ikastaroa egitea herriaren onerako dela irizten dionean, kirol hezkuntzako prestaketa egiteko ikastaroaren matrikula erdia ordaindu dio herriko talde edo elkarteari, horretarako dagoen partidaren zenbatekoa gainditzen ez den bitartean.

4.- Eskola umeei zuzentzen direnean (Gazteen arteko sustapena 481 02 02 partida zk.)

Herriko kirol elkarte edo herriko taldeei begira, Kirol Patronatuarekin batera eskolako hezkuntza fisikorako begiraleei begira, horrelako taula osatu da begiraleen formazio eta ordu kopuruak kontuan hartuz:

- Astean 2 saio eta asteburuan beste bat, gutxienezko titulazioarekin, hileko 72,12 €
- Astean 2 saio gutxienezko titulazioarekin, hileko 60,10 €
- Astean 2 saio eta asteburuan beste bat, gutxienezko titulaziorik gabe 48,08 €
- Astean 2 saio gutxienezko titulaziorik gabe 36,06 €

Hau horrela izango da, baldin eta partidaren zenbatekoa ez den gainditzen; gaindituz gero, proportzionalki jaitsiko dira kopuruak partidaren zenbatekoari egokitu arte.

5.- Herriko kirol egitura sendotzeko direnean (481 02 03 partida zk.)

Diru-laguntzak ematerakoan, herriko kirol talde edo elkarteak hartuko dira kontuan, ondoko irizpideen arabera:

- Bere esparruan taldeak izandako ibilbidea, jarraipena eta egonkortasuna, parte-hartzaile kopurua, iraupena, jardueraren esparrua eta zabalkundea. Gehienez, 40 puntu.
- Egitasmoen edo jardueren kalitatea. Gehienez, 40 puntu.
- Adin eta genero guztietarako plangintza. Gehienez, 40 puntu.

Diru-laguntza emateko, ezinbestekoa izango da Kirol Patronatuarekin Eskola Kirolean elkarlanean aritzea, ekintza guztietan euskararen erabilera bermatzea eta puntuaketari dagokionez, gutxienez 60 puntu lortzea.

6.- Eskaintza bereziak direnean (Laguntza bereziak 482 04 partida zk.)

Aldian behineko kirol jardueretarako diru-laguntzak ematerakoan hauek hartu dira kontuan:

- Egitasmoaren edo jardueraren kalitatea. Gehienez, 40 puntu.
- Bere esparruan taldeak izandako ibilbidea, jarraipena, egonkortasuna eta jarduera antolatzeaz azpiegitura eta giza baliabideak. Gehienez, 40 puntu.
- Aurkeztutako egitasmoa herritarrei zabaltzea. Gehienez, 40 puntu.
- Parte-hartzaile kopurua, iraupena, kirol maila, jardueraren esparrua eta zabalkundea. Gehienez, 40 puntu.



- Jardueraren finantziazioa. Gehienez, 40 puntu.

Dirulaguntza emateko, ezinbestekoa izango da, ekintza guztietan euskararen erabilera bermatzea eta puntuaketari dagokionez, gutxienez 80 puntu lortzea.

Kirol jarduera arruntetik kanpo, kanpoan egonaldi baterako laguntza eskatzen denean, bidaiaren erdia ordainduko du Kirol Patronatuak horrela irizten dionean eta partidaren zenbatekoa gainditzen ez denean.

9. artikulua.-Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza eman dela jakinarazi bezain laster, diru-laguntzaren %50a ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %50a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Ordenantzaren 12. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10.artikulua.-Betebeharrak

Deialdi honetako diru-laguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- a) Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- b) Jarduera egiten ari dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- d) Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Kirol Patronatuak edo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trazarik ez jartzea, ez eta Esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- e) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik –publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
- f) Diru-laguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero –objektiboa nahiz subjektiboa izan –, diru-laguntza eskaini duen organoari aldaketa horren jakinaren gainean jartzea.
- g) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea, Usurbilgo Kirol Patronatuak eta Udalak ezarritakoak barne. Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitortzen adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharratan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.
- h) Diruz lagundutako jarduerari buruz, pertsona onuradunak euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko du argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.



USURBILGO KIROL PATRONATUA

Era berean diruz lagundutako jarduerak Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartuko du.

Gainera, diruz lagundutako jardueran diharduela egiaztatzerakoan, hizkuntza-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak.

i) Ekintzei lotutako publizitatean Kirol Patronatuaren edo Usurbilgo Udalaren babesletza adierazi beharko da, Kirol Patronatuaren edo udalaren logoa erantsiz.

11. artikulua.-Diru-laguntza justifikatzea

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, hilabeteko epean eta, beti ere, jarduera egin deneko hurrengo egunetik zenbatuta:

a) Egindako jardueraren memoria (V. Eranskinaren arabera), ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira.

b) Gastuaren egiaztigiri originalak edo fotokopia konpultsatuak. Egiaztigiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztigiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru-laguntza ematerako orduan oinarritzat hartu zen gastuaren aurrekontua eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako dirulaguntzaren mugaraino.

c) Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkio: azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen bi ale. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko Usurbilgo Udala edo Udal Kirol Patronatua agertu beharko da jardueraren babesle moduan egingo den publizitate guztian.

Fakturetan hauxe agertuko da:

- Erakundearen edo/ta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera.
- Zerbitzuaren deskripzioa.

Dirulaguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da diru-saririk jasoko.

12. artikulua.-Dirua itzultzea

Deialdi honetako 10. artikulua b) paragrafoak ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitu Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 15. artikulua eta, beti ere, Ordenantza bereko 16. artikulua arautzen duen prozedura jarraituz.

13. artikulua.-Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.